

## **Umeengan irakurzaletasuna suspertzeko kluba zabalduko dabe Bermeon**

Bermeoko Joxe Miel Barandiaran Udaleko liburutegiaren ekimenez, 8 eta 9 urteetako umeengan irakurzaletasuna suspertzeko irakurketa kluba eratuko dabe herrian, datorren urteari begira. Ekimena 2014ko urtarriletik abendura bitarte garatuko da, hileror ordu beteko saioetan, hain zuzen be. Hitorduetan, umeen gurariak, interesak eta fantasia pertsonalak abiapuntu hartuta, ariketak, jokoak eta dinamika ezberdinak egingo dira umeen irakurzaletasuna suspertzeko eta liburuekiko atxikimendua sortzeko.

Irakurketa klubean, izan be, «giro atsegina sortu gura dogu, umeak gustura eta pozarren egotea, umeengan liburuak irakurtzeko gero eta gogo gehiago sortzeko helburuagaz», azaldu dabe Bermeoko bibliotekako arduradunek. Jarraituko dan metodologiari jagokonez, saio bakoitza ordubetekoa izango da eta metodoaren oinarria denek parte hartzea izango da. Horretarako, saio guztietan izango dira hezkuntza eta dibertsioa uztartzen dabizen jarduerak.

Dinamizatzailleak, izan be, unitate didaktiko bat ekarriko dau saio bakoitxean umeakaz garatzekotan. Klubean parte hartu nahi dabenek Bermeoko Udal Liburutegira joan behar dira urtarrilla baino lehen. Izen-emotea doan da.